

Iturritik itsasora filma bi zatitan da, bakoitza 52 minutukoa.

Filmaren 1. zatia : Ühaitza, Arbaila, Irati

Filmaren 2. zatia : Errobi eta Urdazuri, Estuario guneak, ingurumenaren zaintzeko, eta itsasoa.

Filmaren lehen zatiaren sarrera (3')

Ühaitza (18')

- Mendiko erreka, flora eta fauna, elikakateak
- Erreken antolamenduak eta ondorioak: arrainen xuhurtzea (**Grandeur nature** elkarteko **Dominique Cunchinaberekilako elkarrizketa**) eta uholdeak (**Michel Bouillon, bio-espeleologorekilako elkarrizketa**)
- *Ühaitzaren eresia* bertsoak
- Pettarrean : laborantzan erabiltzen diren produktuek eta ur zikinen tratamendu eskasak dakarten kutsadura.

Arbaila, gisu-harrizko mendigunea (21')

Sarrera

- Zorupeko ura, flora eta fauna, elikakateak ; bertso bat bukaeran
- Termalismoa Cauterets aldean. Bukaera *Bortian Ahizki* kantuarien kopia bat
- Paisaien bilakaera (**Nathalie Vanara geografoarekilako elkarrizketa**)
- Alhagietako kabalak sobera izaiteak eta mendiko ziloetan aurtikitzen diren zaborren eragina uraren kalitatean.

Irati (8')

- Artxilondoko zohikaztegia : gune horren ezaugarriak eta paisaien historiaren ezagutzeko bidea, alhagietako kabalaren eragina (**Espaces naturels d'Aquitaine** elkarteko **Pascal Arlotekilako elkarrizketa**)
- Aintzira artifizialak.

Filmaren 1. zatiaren amaiera

Errobi, Urdazuri (15')

- *Bertsoa*
- Ikasleak behatzen ari : Xalbador ikastegiko ikasleak eta Jaki Aguerre irakaslea Aldudeko erreka bazterrean, Urtxintxenia elkarteko Eztitxu Sabarotsekilako elkarrizketa, Bidarraiko eskola publikoko haurrak Baztan erreka bazterrean
- Erregimen hidrologikoak : oihanen tipitzeak eta bide anitz egiteak dakartzaten ondorioak (**Aldudeko Michel Harispe arrain hazlearekilako elkarrizketa**)
- Lehengo antolamendu xumeen (adibidez Senpereko eihera) eta oraingoan arteko aldea, adibidez Senpereko aintzira artifiziala (**Isabelle Bouchon eta San Martin eskolako haurrak**) eta Eslourentis-eko urtegia (**Dominique Mahaut ofizioako arrantzalearekilako elkarrizketa**).

Estuario guneetan (15')

- *Bertsoa*
- Ofizioko arrantzarien arrangurak (Aturriko estuarioko Dominique Mahaut eta Jacques Lespine arrantzarietarako elkarrizketak)
- Aturriko barten ezaugarriak (**Muséum d'histoire naturelle elkarteko Marie-Sylvie Campagnollere**etarako elkarrizketa)
- Txingudiko badiaren ezaugarriak (**CIEP Abbadiako Pascal Clerc**-etarako elkarrizketa). Bertso bat sarrera gisa.
- Simone Grassekin, Larresoroko eskolako ikasleak izaki mikroskopikoei behatzen ari

Ingurumenaren zaintzeko (11')

- Ur araztegietatik (**CPIE Pays basque elkarteko Philippe Iñarrare**etarako elkarrizketa), erreka bazterren garbitzeko lanetara (**MIFEN elkarteko Emmanuel de Joantho eta Pascal Garciare**etarako elkarrizketak) etxeko, laborantzako eta industrietako jokamoldeak dakarten kutsadura
- Laborantza biologikoan ari den **Jon Harluxet**etarako elkarrizketa. Bukaeran, M-S Campagnolle eta Bidarraiko eskola publikoko haurrak
- Edateko uraren hornitzeko Bretainian egin duten urtegiaren kutsadura zianobakterioengatik.

Itsasoa (10')

- Kutsaduraren ondorioak itsas hegiko ugaztun baten autopsiaren adibidea
- Ozeanoak elkarri lotuak dira. Uraren kalitatea tipituz doa ; halaber arrainak (**hiru elkarrizketa: Itsas gazteriak elkarteko Mikel Epalzarekin, Philippe Déru eta Gilles Campion, Bretainiako itsasertzeko arrantzarietarako**).
- Azken hitza : planktonaren garrantzia eta gure planetan bizia garatzeko izan duen esku-hartzea.

Filmaren 2. zatia amaitzeko

Pirinioetako mendiguneetatik itsasoraino bide egiten du urak, zernahi gunetatik iraganez, adibidez : mendiko erreka dugun Ühaitza, gisu harrizko mendigunea den Arbaila, Iratiko zohikaztegia, Errobi, Urdazuri, esturio gunetan dauden Aturriko bartak eta Txingudiko badia... itsasoraino.

Hainbat jende aditurekin egin elkarrizketei esker, filmaren egileek erakustera ematen digute hain hurbil ditugun toki hauek ederrak bezain aberatsak direla baina minberak ere eta jendeen jokamoldeek lanjerrean ematen dituztela.

Ura orotan da eta ingurumenaren zaintzeko, kutsaduratik begiratu behar da. Gai hau arrangura nagusietarik dukegu geroari begira.

Filma den bezala ikus daiteke, bi partetan zatitua, edo berdin gaika, bereziki natur zientzietako dokumental gisa.